



# EDIKTUA

**JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENAK,  
ETXARRI ARANAZKO ALKATEAK**

**ADIERAZTEN DU**

## **AURREKONTUEN HASIERAKO ONESPENA (2013)**

Etxarri Aranazko Udalak, 2013ko martxoaren 11an osoko bilkuran, 2013. urteko aurrekontu orokor eta bakarra, eta hura betearazteko oinarriak onetsi zuen hasiera batez. Baita Musika Eskolakoak ere.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako aurrekontua idazkaritzan egonen da ikusgai, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Etxarri Aranatz, 2013ko martxoaren 25ean.

ALKATEA

Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

